


Heriotzek % 6,6 egin dute gora 2022ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn, eta COVID-19ak eragindakoek, % 14,5

2022ko lehen seihiilekoko metatuan, heriotzek % 7 egin zuten gora

2022ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.775 heriotza izan dira, aurreko urteko aldi berean baino % 6,6 gehiago, Eustaten datuen arabera. Urteko metatuan, urtarrilaren eta ekainaren artean, 12.211 heriotza izan dira, 2021eko aldi berean baino % 7,0 gehiago.

Hiru lurraldeetan, heriotzek gora egin dute, eta bereziki esanguratsua izan da igoera Araban eta Bizkaian; Araban, % 9,5 egin dute gora, eta, guztira, 792 pertsona hil dira, eta, Bizkaian, % 9,3, eta 3.150 pertsona hil dira. Gipuzkoan, igoera txikiagoa izan da, % 1,2koa; 1.833 heriotza izan dira. Sexuari dagokionez, 2.925 emakume eta 2.850 gizon hil dira; alegia, % 9 egin du gora heriotzak emakumeetan eta % 4,2, gizonetan.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Bigarren hiruhileko honetan izan diren heriotzen artean, 10 (% 0,2) urtebetetik beherakoenak izan dira eta 101 (% 1,7), ehun urtetik gorakoenak.

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira; 1.547 eta 1.370 heriotza, hurrenez hurren. Alegia, bi horiek heriotzen % 50,5 izan dira. Hirugarren heriotza-kausa COVID-19a izan da; 364 heriotza (% 6,3), aurreko urteko hiruhileko berean baino % 14,5 gehiago.

Heriotzen motiboak desberdina izaten jarraitzen du, sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, tumoreek gainditu egin dituzte zirkulazio-sistemako gaixotasunak, eta, emakumeen artean, kausa nagusia zirkulazio-sistemaren gaixotasunak izan dira eta, ondoren, tumoreak.

Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan da 2022ko bigarren hiruhilekoan, behera egin baitu (2.456 pertsona gutxiago). Hiru lurraldeetan, biztanleria galdu da: Bizkaian, 1.519 pertsona; Gipuzkoan, 750, eta, Araban, 187.

COVID-19aren ondorioz 364 heriotza izan dira 2022ko bigarren hiruhilekoan

COVID-19ak, guztira, 364 heriotza eragin ditu, 2021eko hiruhileko berean baino 46 gehiago, baina 2020ko hil beretan izandako heriotza kopurutik (1.241) urrun. Heriotza horiek 2 taldetan sailkatzen dira: 363, COVID-19 egiaztatuaren ondorioz, eta 1, ustezko COVID-19agatik. Gainera, beste 145 heriotzatan, COVID-19a heriotza-kausa ziurtatuetako bat izan da, baina ez funtsezko kausa.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19rekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2022/II

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	5.775	364	363	1
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	792	46	46	0
Bizkaia	3.150	196	196	0
Gipuzkoa	1.833	122	121	1
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	294	20	20	0
Basauri	116	10	10	0
Billbao	1.037	61	61	0
Donostia / San Sebastian	501	28	28	0
Getxo	192	15	15	0
Irun	150	10	10	0
Portugalete	141	9	9	0
Santurtzi	125	10	10	0
Vitoria-Gasteiz	581	38	38	0
Sexua				
Gizon	2.850	192	191	1
Emakumea	2.925	172	172	0
Adina				
40 urtetik beherakoak	49	0	0	0
40 urtetik 59ra	388	10	10	0
60 urtetik 79ra	1.591	75	75	0
80 urte edo gehiago	3.747	279	278	1

Data 2022ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Lurraldeen arabera, zifrarik altuena Bizkaian izan da (196); ondoren, Gipuzkoan (122) eta, gero, Araban (46). Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmendu behar da (61 heriotza COVID-19ak eraginda), gero Gasteiz (38) eta, azkenik, Donostia (28). Barakaldo (20 heriotza), Getxo (15) eta Basauri, Santurtzi eta Irun (guztietan 10) ere nabarmendu beharreko udalerriak dira.

Gizonen heriotza kopuruak (192) emakumeena (172) gainditu du, eta, adinen arabera, talde kaltetuena 80 urtetik gorakoena izan da, COVID-19agatik heriotzen % 76,6 tarte horretan izan baita (279 heriotza).

Heriotza horiek, nagusiki, Euskal AEko ospitaleetan gertatu dira (% 79,1; % 89 2021eko bigarren hiruhilekoan), eta, ondoren, egoitza soziosanitarioetan (% 11; % 1,9 2021eko bigarren hiruhilekoan) eta etxeetan (% 9,6; % 9,1 2021eko bigarren hiruhilekoan).


Heriotzak bizilekuaren lurraldearen, betetako adinaren, sexuaren, heriotza-arrazoiaren eta heriotza-hilabetearen arabera (1). 2022/II

	2022/II				2022/I				2021/II			
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)	
HERIOTZAK	5.775	100,0	6.436	100,0		-10,3	5.418	100,0			6,6	
Araba / Álava	792	13,7	832	12,9		-4,8	723	13,3			9,5	
Bizkaia	3.150	54,5	3.446	53,5		-8,6	2.883	53,2			9,3	
Gipuzkoa	1.833	31,7	2.158	33,5		-15,1	1.812	33,4			1,2	
Adina												
1 urtetik beherakoak	10	0,2	11	0,2		-9,1	7	0,1			42,9	
1-19 urte	6	0,1	8	0,1		-25,0	11	0,2			-45,5	
20-39 urte	33	0,6	53	0,8		-37,7	49	0,9			-32,7	
40-59 urte	388	6,7	399	6,2		-2,8	370	6,8			4,9	
60-79 urte	1.591	27,5	1.827	28,4		-12,9	1.543	28,5			3,1	
80-99 urte	3.646	63,1	4.026	62,6		-9,4	3.375	62,3			8,0	
100 urte edo gehiago	101	1,7	112	1,7		-9,8	63	1,2			60,3	
Gizonak	2.850	49,4	3.156	49,0		-9,7	2.735	50,5			4,2	
1 urtetik beherakoak	3	0,1	7	0,2		-57,1	5	0,2			-40,0	
1-19 urte	3	0,1	4	0,1		-25,0	8	0,3			-62,5	
20-39 urte	24	0,8	24	0,8		0,0	32	1,2			-25,0	
40-59 urte	260	9,1	246	7,8		5,7	248	9,1			4,8	
60-79 urte	1.007	35,3	1.153	36,5		-12,7	999	36,5			0,8	
80-99 urte	1.545	54,2	1.709	54,2		-9,6	1.436	52,5			7,6	
100 urte edo gehiago	8	0,3	13	0,4		-38,5	7	0,3			14,3	
Emakumeak	2.925	50,6	3.280	51,0		-10,8	2.683	49,5			9,0	
1 urtetik beherakoak	7	0,2	4	0,1		75,0	2	0,1			250,0	
1-19 urte	3	0,1	4	0,1		-25,0	3	0,1			0,0	
20-39 urte	9	0,3	29	0,9		-69,0	17	0,6			-47,1	
40-59 urte	128	4,4	153	4,7		-16,3	122	4,5			4,9	
60-79 urte	584	20,0	674	20,5		-13,4	544	20,3			7,4	
80-99 urte	2.101	71,8	2.317	70,6		-9,3	1.939	72,3			8,4	
100 urte edo gehiago	93	3,2	99	3,0		-6,1	56	2,1			66,1	
HERIOTZA-KAUSA												
Guztira												
Neoplasia	1.547	26,8	1.574	24,5		-1,7	1.570	29,0			-1,5	
Zirkulazio sistema	1.370	23,7	1.508	23,4		-9,2	1.361	25,1			0,7	
Arnas sistema	342	5,9	375	5,8		-8,8	275	5,1			24,4	
Nerbio sistema	355	6,1	418	6,5		-15,1	324	6,0			9,6	
Txegoste sistema	281	4,9	270	4,2		4,1	270	5,0			4,1	
Gainerako kausak	1.880	32,6	2.291	35,6		-17,9	1.618	29,9			16,2	
COVID-19 baieztatuta	363	6,3	777	12,1		-53,3	317	5,9			14,5	
COVID-19 probalea	1	0,0	6	0,1		-83,3	1	0,0			0,0	
Bestelakoak	1.516	26,3	1.508	23,4		0,5	1.300	24,0			16,6	
Gizonak												
Neoplasia	918	32,2	884	28,0		3,8	927	33,9			-1,0	
Zirkulazio sistema	626	22,0	708	22,4		-11,6	650	23,8			-3,7	
Arnas sistema	180	6,3	209	6,6		-13,9	163	6,0			10,4	
Nerbio sistema	141	4,9	153	4,8		-7,8	137	5,0			2,9	
Txegoste sistema	151	5,3	137	4,3		10,2	136	5,0			11,0	
Gainerako kausak	834	29,3	1.065	33,7		-21,7	722	26,4			15,5	
COVID-19 baieztatuta	191	6,7	436	13,8		-56,2	180	6,6			6,1	
COVID-19 probalea	1	0,0	3	0,1		-66,7	0	0,0			0,0	
Bestelakoak	642	22,5	626	19,8		2,6	542	19,8			18,5	
Emakumeak												
Neoplasia	629	21,5	690	21,0		-8,8	643	24,0			-2,2	
Zirkulazio sistema	744	25,4	800	24,4		-7,0	711	26,5			4,6	
Arnas sistema	162	5,5	166	5,1		-2,4	112	4,2			44,6	
Nerbio sistema	214	7,3	265	8,1		-19,2	187	7,0			14,4	
Txegoste sistema	130	4,4	133	4,1		-2,3	134	5,0			-3,0	
Gainerako kausak	1.046	35,8	1.226	37,4		-14,7	896	33,4			16,7	
COVID-19 baieztatuta	172	5,9	341	10,4		-49,6	137	5,1			25,5	
COVID-19 probalea	0	0,0	3	0,1		-100,0	1	0,0			-100,0	
Bestelakoak	874	29,9	882	26,9		-0,9	758	28,3			15,3	
HERIOTZA-HILABETE												
Apirila	1.971	34,1					1.827	33,7			7,9	
Malatz	1.930	33,4					1.850	34,1			4,3	
Ekaina	1.874	32,5					1.741	32,1			7,6	
(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoak datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira												

Data 2022ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62